


Louisianan Santo Tomasik ez

Taldea: Imuntzo eta Beloki. **Lekua:** Bilboko Kafe-Antzokia. **Eguna:** Abenduaren 21a. **Jende kopurua:** 100 lagun. **Iraupena:** Ordubete eta 30 minutu. **Sarrera:** Doan.

GIPUZKOAR TALDEAK Bilbon ospatu zuen Santo Tomas jaiaren amaiera. Dirudenez, entzuleak bidean geratu ziren txistor, odoloste eta taloen artean galdu-ta. Beraz *Louisianara noa* lan berriaren aurkezpen bilbotarra airean geratu zen. Talde honek ez zuen merezi.

Imuntzo eta Beloki taldea soinu bereziaren atzean ibili da laugarren disko honetan: musikari zurien *cajun* eta musikari beltzen *zydeco* erritmoetan saiatu dira, estudioan behintzat maila ederra gainditu dutelarik. Zuzenean ere ondo defendatzen dute Louisianako apustua, eta jendearen nahasia baztertzeko fandangoak, jotak, porrusaldak eta abar tartekatu zituzten. Erremedio galanta: hasieran entzule talde urria ez zen mugitzen; hori gutxi izatekotan, atzeko partean kokatzen ziren gehienak barren ondoan, goizeko edo eguerdiko taloa nola zegoen komentatzeko. Boskoteak, berriz, lanari ekin zion eta lehehengo ordubetearen beraiek izan



ANDER GILLENEA

Imuntzo trikiti jolea.

ziren izerditan blai ibili zirenak.

Imuntzok eta Belokik izugarrizko esperientzia dute jendea animatzerakoan eta horri ekin zioten. Lan horren ondorioz, fandango dantzari zirkulu batzuk sortu ziren entzuleak aurrera zihoazen ahala. Hori bai, euskal erritmoak landu eta gero Louisianara berriro.

Poliki-poliki ia kantu berri guztiak agertu ziren. Horietako batzuk lehenbiziko zerrendan zeuden, baina panorama ikusita ongi baino hobeto moldatu zuten eskaintza. Dena den, hor izan ziren *AHT blues*

—country eta bluesa nahastuta—, *Louisianara noa* —balada eta balsaren arteko erritmoa, Arkaitz Minerren biolinaz—, *Hiru hosto* —Irlandari dedikatua, biolin musikaz berriz—, *2000 K.O.*, *Pater Noster* —Aita Santua ere disko grabatzailea, hau kompetentzia!—, *Txosnarien himnoa* —beti zure esanetara—, *Altxorraren bila* —Itoitz gogoan—... Zaharrak ere berreskuratzen zituzten: *Arinka jun*, *2000 amets pila*, *Bizi nahia*, bisen aurreko *Sal-tatu plazara*, bisetako *Gora Afrika* eta lehenbiziko diskoko *Gizontzo gizentxo*, beste askoren artean.

Taldearen jarrera egokia

Bandaren soinua oso sendoa bihurtu da denboraren eta erromerian poderioz: erritmo bikotea —Mattin Sorzabalbereren baxua eta Iñaki Otegi-
ren bateria, azken hori Jimmy Arrabiten lekuan— indartsua da eta noizean behin baxu joleak ideia propioak dituela erakusten du. Horrekin batera gero eta garrantzitsua da Arkaitz Minerren gitarraren lana, behin-behineko biolinarena

ahantzi gabe. Bera izan da diskoaren ekoizlea eta konponketen autorea. Egia esan, bigarren plano batean geratzen da, triki eta pandero joleen atzean, baina pisuzkoa da bere gitarrak sortutako giroa, adibidez, Azken aurreko notak bluesean *bottleneck* bat erabiltzen duenean.

Beste aldetik, argi dago Imuntzo triki jole trebea eta irudimentsua dela, batez ere esaldi kutsagarrien bila abiatzen denean. Horren ondoan, Beloki pandero jolea eta kantaria, ahots nagusia zein harmoniarena egiteko beti prest. Hala eta guztiz ere, ahots horien harmonizazioan mugatasunak antzematen dira eta ez dute helburua lortzen. Zuzenean arrisku hori handitzen da eta ahots jokoak airean geratzen dira noizean behin.

Taldearen jarrera gustatu zitzaidan. Esan bezala, haizearen kontra jo zuten gipuzkoarrek, baina ez ziren geldirik geratu: behin eta berriro animatu zuten entzuleria jai giroa sortu arte. Tamalez, Louisianaraino joan ziren, bakarrik han Santo Tomas ez zegoela egiaztatzen.

Joseba Martin

laburrean

ANTZERKIA

■ 'Ilargia harrapatu dute' ikuskizuna Nafarroako Antzerki Eskolan

NAFARROAKO Antzerki Eskolan, haurrentzako *Ilargia harrapatu dute* obra emanen dute hilaren 26, 27, 28, 29 eta 30ean, eta urtarrilaren 2, 3 eta 4an. Eva Puyok idatzi du lana, eta Iruñeko Udalak antolatzen duen haurrentzako antzerki testuen lehiaketan lehen saria jaso du. Basoko animalien arteko kontakizuna da *Ilargia harrapatu dute*. Arratsaldeko 18:30etan izanen dira emankizun guztiak.

MARRAZKIA

■ 'Camille y otras fieras' liburua kaleratu du Cesar Oroz marrazkilaria

CESAR OROZ marrazkilaria *Camille y otras fieras* liburua argitaratu du. Azken bi urteotan *Diario de Navarra* egunkarian kaleraturiko 2.000 bineta inguru bildu ditu Orozek, Nafarroako politikaren eta gizartearen inguruko gaiak buruz. *Camille* hartza, Iruñeko alkate Yolanda Barcina, Itoitzekiko *solidarioak*, Osasuna eta Nafarroako Polizia Forala dira *Camille y otras fieras* liburuko bineta gehienetako protagonistak.

LIBURUGINTZA

■ Lorenzo Portillo da Euskadiko Liburu Ganberako lehendakari berria

EUSKADIKO LIBURU GANBERAKO zuzendari-tza batzorde berria izendatu berri dute, eta Euskadiko Editoreen Elkarte-ko lehendakariorde Lorenzo Portillok hartu du Jose Leginaren lekua lehendakari karguan. Bizkaiko Liburu Saltzaileen Elkarte-ko lehendakari Kepa Torrealdai eta Jose Luis Goitia arte grafikoe-tako kidea dira Liburu Ganberako lehendakariorde berriak. Irabazi asmorik gabeko erakunde bat da Euskadiko Liburu Ganbera, eta editoreak, saltzaileak, banatzaileak eta liburuak inprimitzen diharduten langile grafi-koak biltzen ditu. Liburuaren kudeaketan, sustapenean eta produkzioa-
ren garapenean dihardu.